

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### Hasiera onarpena. Lautada landa garapenerako elkartean bazkide izatea

Udalbatzak, 2020ko uztailaren 24an egindako batzarrean, beste batzuen artean, honako Erabaki hau hartu zuen:

Lehena. Lautada landa-garapenerako elkartean bazkide gisa sartzeko hasierako onarpena ematea.

Bigarrena. Agiria jendaurrean jartzea hogeit hamar egun balioduneko epean, jarraian aipatzen diren azken argitalpenen bihamunetik zenbatzen hasita, alegazioak edo iradokizunak aurkezteko:

- ALHAO.
- Udaletxeko ediktu-taula.
- Udalaren webgunea.

Alegaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasierako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Hirugarrena. Barrundiako Udalaren ordezkari izendatzea honako hauek:

- Titularra: Nagore Beltran de Heredia Roman.
- Ordezkoa: Bixente Lasaga Belategi.

Ozaetan, 2020ko uztailaren 27an

*Alkate ordea*

*IKER GORDOBIL GARCIA DE ALBENIZ*